Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

RENOVACIÓN DE LA ESTACIÓN DE AFOROS DE EZTANDA (BEASAIN)

EZTANDAKO AFORALEKUAREN BERRIKUNTZA (BEASAIN)



EZTANDAKO AFORALEKUAREN BERRIKUNTZA (BEASAIN)

- 1. dokumentua: MEMORIA
- 2. dokumentua: PLANOAK
- 3. dokumentua: PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA
- 4. dokumentua: AURREKONTUA

1. DOKUMENTUA

MEMORIA

MEMORIA

AURKIBIDEA:

1. AURREKARIAK, PROIEKTUAREN OBJEKTUA ETA HARTUTAKO IRTENBIDEAREN JUSTIFIKAZIOA 1

2. OBREN DESKRIBAPENA 2

3. SARBIDEA 4

4. LANAK EGITEKO EPEA ETA BERMEAREN EPEA 4

5. PROIEKTUAREN AURKIBIDEA 4

6. AURREKONTUA 6

1. AURREKARIAK, PROIEKTUAREN OBJEKTUA ETA HARTUTAKO IRTENBIDEAREN JUSTIFIKAZIOA

Gipuzkoako ur emaria eta kalitatea neurtzeko sarea hobetzeko eta modernizatzeko Plan Gidariaren aurreproiektu bat egin da. Bertan, Gipuzkoako aforalekuen azterketa bat egin da, azpiegitura propioak hobetu beharra zehaztu ahal izateko.

Eztandako aforalekua, Beasainen, 1991z geroztik dago abian. Jasotzen duen arro azalera 55,02 km^2 da, eta batez besteko ekarpena, berriz, 33,40 hm^3/urtean.

Etxolak uraren kalitatea neurtzeko dituen ekipamenduak, gaur egun, aforalekuko hobietako estalkien gainean kokatuta daude, eta horrek eragotzi egiten du ekipamenduetara segurtasunez iristea; beraz, etxola handitu egingo da ibaian beherantz, ekipamendu horiek birkokatu ahal izateko.

Gainera, erabaki da beharrezkoa dela tornu bat edukitzea, ur emaria neurtzeko, une puntualetan; beraz, etxola handitu egingo da ibaian gorantz, tornu bat ezartzeko asmoz. Obra horien bidez, bi euskarri eraiki behar dira ibai ibilguaren bi aldeetan, tornuaren kableatuarentzat sostengu gisa balio dezaten.

Proiektu honen objektua da beharrezko obrak definitzea neurketa-etxola handitzeko, helburutzat hartuta tornua ezartzea eta uraren kalitateko ekipamenduak birkokatzea.

Kontuan izan behar da ibaiaren eskuinalderako sarbidea egiten dela aforalekuaren egungo zerbitzu pasabidetik, eta ez dagoela zuzeneko sarbiderik dimentsio handietako makinentzat; beraz, aurreikusten da baliabide lagungarriak erabiltzea ibaiaren ezkerraldetik, sarbide hori errazteko. Ibaiaren ezkerraldean profil metalikoa ainguratzeko obrek berekin ekarriko dute makinen mugimendu handiagoa, baina sarbide ona dago GI-2632 errepidetik.

2. OBREN DESKRIBAPENA

Hauek dira egin beharreko obrak:

- Etxola handitzea eta ibilguko hormak egokitzea.
- Etxolaren barnealdea eta kanpoaldea berritzea.
- Ibaiaren eskuinaldeko urbanizazioa berritzea.
- Ibaiaren bi ertzetan, HEB-300 altzairuzko bi pilare jartzea, euskarri desberdinetako sistemak dituztenak.
- Ibaiaren ezkerraldea egokitzea.

Etxolak uraren kalitatea neurtzeko dituen ekipamenduak, gaur egun, aforalekuko hobietako sarbideen gainean kokatuta daude, eta horrek eragotzi egiten du ekipamenduetara segurtasunez iristea; beraz, etxola handitu egingo da ibaian beherantz, ekipamendu horiek birkokatu ahal izateko. Gainera, ponpatik sartzen den uraren kanalizazio berri bat egingo da, eta hustubide berri bat ere bai.

Gainera, tornu finko berri bat egongo da aforalekuan; horregatik, etxola handitu egingo da ibaian gorantz, sostengu profil berria kokatzeko.

Etxolaren handitzeak euskarri izango du zapata bat, 3,00 x 1,00 x 0.30 m-koa, ibaian gora, eta beste bat, 3,00 x 2,00 x 0,30 m-koa, ibaian behera.

Etxolako lauzaren gainean horma bat egingo da, zokalo modura, 0,70 m-ko altuerakoa. Horma horren gainean, itxiturak egingo dira, hormigoizko blokeen bitartez, ibaian gora eta ibaian behera lehendik dauden hormak eraitsi ondoren.

Estalkia egiteko, lehendik dagoen profilari jarraituko zaio, eta hura ere handituko da: 1,00 m ibaian gorantz, eta 2,00 m ibaian beherantz. Oraingo teilazko estalkia kendu, eta osorik estaliko da morteroaren gainean ezarritako teila kurbatuarekin.

Oraingo etxolaren espaloi perimetrala berrituko da, eta ponpako sarbidearen eremuraino handituko da, 1,30 m-ko zabalera emanez.

Egitura berri guztiak lehendik dagoen egiturari lotuko zaizkio, hurrengo prozesuaren bidez: lehenik, eremua pikatu eta saneatuko da, eta, ondoren, Sikadur-32 fix geruza bat edo antzekoa aplikatuko da, lotura-kontaktu egokia sortzeko. Ondoren, ainguraketa batzuk egingo dira 16

mm-ko hagaxka metalikoekin, hormak lotzeko, 20 cm-tik behin erretxinekin ezarrita, eta hormigoi berrian txertatuta geratuko dira.

Etxolan instalatuko den HEB-300 profila 2,50 m luze izango da, eta ibaian gorako hormatik atzera emanda joango da, 70 cm inguru, ardatzari buruz neurtuta.

Profil hori bi puntutan ainguratuta egongo da. Oinarria etxolaren lauzan bermatuta dago. Aurrez, berme eremuan, harlauzaren zoladura eta hormigoiaren zati bat pikatu beharko da, elementu horien armadura bistan utzi arte. Profilaren goialdea estalkiaren lauzan ainguratzen da. Bi ainguraketa horiek profilera soldatutako metalezko plaken bidez egingo dira, eta hormigoirako, metalezko ainguraketak erabiliko dira. Pieza tailerrean erabat osatuta etorriko da, eta obran ebaketarik edo soldadurarik egitea saihestuko da.

Tornua izango denaren kableak aforalekutik ibaiaren ezkerraldeko euskarriraino ateratzeko, leiho berri bat egitea proposatu da. Gainera, etxolan sartzeko atearen ordez neurri bereko berri bat jarriko da kokaleku berri batean, eta bi leiho berri jarriko dira ibaian gorako eta ibaian beherako hormetan, eta kenduko dira eskuineko eta ezkerreko fatxadetan daudenak.

Erremate gisa, zoladura irristagaitz bat jarriko da etxola osoan; saneatu eta margotu egingo da barrutik zein kanpotik, eta azulejuak jarriko dira etxolaren barruan, kalitateko instalazioen aurrealdean.

Tornuko kableak eta plomua bere errotatxoarekin libreki pasa ahal izateko, ibaiaren eskuinaldeko ibilguko hormaren kota beheratuko da, 0,40 x 1,00 m zabal, eremu horretan. Gainera, beste beheratze txiki bat egingo da, ibaiko maila-zundaren kaxa birkokatzeko, eta ate metaliko batzuk ezarriko dira beheratutako hutsartean.

Gainezkabidera jaisteko eta ponpara iristeko eremuetan, horma 2,00 m zabal beheratuko da, eta behar den garaieran, lurzoruaren kotaraino. Ate metaliko batzuk ezarriko dira, eta sarbideko pateak berrituko dira.

Lekuz aldatuko da Iberdrolaren zutoina, zeina planoetan definituta geratuko baita, eta kanalizazio berri bat egingo da etxolaraino, hutsarte bat utzita horma berrian, non ezarriko baita dagokion armairua.

Ibaiaren ezkerraldean, tornua izango denaren euskarria HEB-300 profil metaliko bat da, 4,15 luze dena. Profil horren euskarri modura, hormigoi armatuzko zapata bat eraikitzen da, 3,50 x 3,00 x 2,00 m-koa. Profila 1,00 m zapatan sartuta joango da, eta horretarako, hutsarte bat utziko da

hormigoian, 0,40 x 0,40 x 1,00 m-koa, non ezarriko baita profila. Nibelatu ondoren, hutsartea erretrakziorik gabeko eta erresistentzia handiko mortero batekin beteko da.

Baranda tarte berri bat ezarriko da aforalekuko pasabidera iristeko arrapalan, orain dagoenaren forma kopiatuta.

Azkenik, beharrezko birjarpenak egingo dira ibaiaren ezkerraldean, barne hartuta tornuaren profileko zapata aldean dagoen luminaria.

3. SARBIDEA

Aforalekurako sarbidea GI-2632 errepidetik eta zerbitzu pasabidetik egingo da.

4. LANAK EGITEKO EPEA ETA BERMEAREN EPEA

Obra guztiak egiteko aurreikusitako epea LAU (4) HILABETEKOA izango da.

Komenigarritzat jotzen da berme epea URTEBETEKOA (1) izatea.

5. PROIEKTUAREN AURKIBIDEA

Proiektu honek dokumentu hauek ditu:

- 1. dokumentua: MEMORIA

    1. Aurrekariak, proiektuaren objektua eta hartutako irtenbidearen deskribapena
    2. Obren deskribapena
    3. Sarbidea
    4. Lanak egiteko epea eta bermearen epea
    5. Proiektuaren aurkibidea
    6. Aurrekontua

    1. ERANSKINA. Segurtasuna eta Osasuna
    2. ERANSKINA. Hondakinen kudeaketa
    3. ERANSKINA. Prezioen justifikazioa

4. ERANSKINA. Ingurumen txostena

- 2. dokumentua: PLANOAK

1. Kokapen planoa.

2. Egungo egoeraren oinplanoa.

3.1. Aurkezpen planoa.

3.2. Jarduketen oinplanoa.

4. Etxolaren egungo egoera.

5.1. Etxolako jarduketak.

5.2. Etxolako jarduketak. Profilaren xehetasuna.

5.3. Etxolako jarduketak. Hobi hezearen xehetasuna.

6.1. Xehetasunak.

6.2. Xehetasunak.

- 3. dokumentua: BALDINTZEN AGIRIA

- 4. dokumentua: AURREKONTUA

1.- Neurketak.

2.- Prezioen 1. taula.

3.- Prezioen 2. taula.

4.- Aurrekontua.

6. AURREKONTUA

Beasainen, Eztandako aforalekuaren berrikuntza proiektua kontrata bidez egiteko aurrekontua (BEZa barne) EHUN ETA HAMAR MILA ZORTZIEHUN ETA BOST EURO ETA HIRUROGEI ZENTIMO da (110.805,60 €).

Donostia, 2021eko martxoa

Sin.: Yune García Ancín
Ingeniari zibila

Sin: Felipe Álvarez Rodríguez
Bide, Ubide eta Portuetako ingeniaria